

**FUNTZIONAMENDURAKO ARAUAK**  
**OSPITALIZAZIO UNITATEA- AMATASUNA**
**Abisuren bat eman behar badiguzu, ERABILI LOGELAKO TXIRRINA**
**GURE ZERBITZUAN ZAUDENERAKO ARAU OROKORRAK**

- Ospitaleratutako pazienteak zaren, zure osasuna berreskuratzen eta ezarritako arauak eta jarraibideak betetzen lagundu behar duzu, eta **osasun-sistemak eskaintzen dituen** zerbitzuak egoki erabiltzeaz arduratu.
- Ospitalizazio-unitatetik borondatez irtetekotan, eskatzen dizugu osasun-langileei kontsultatzea eta informatzea, laguntza-asistentzialaren jarraipena bermatu ahal izateko; halaber, **ospitaletik ez ateratzeko eskatzen dizugu**.
- Logelaren ondoan, haur oihalak aldatzeko lekua dago. Erizaintzako pertsonalari laguntza eskatu, horren beharra izanez gero.
- Gure laguntza eskatu, behar duzun guztietan.
- Egunero pijama edo ohe-atorra jasoko duzu. Norberaren garbitasunerako, bainugela bat dago logelan, dutxa eta guzti.
- Geletako komunak pazienteentzat dira. Laguntzaileentzako komunak igogailuak dauden tokian daude.
- Lagundu ospitalean ISILTASUNA mantentzen.
- Pazienteentzako segurtasuna dela medio, ospitaleratutako unitateetan ezin dira sartu landare naturalak edota artifiziaiak (plastiko, kartoi eta abarrezkoak), lurdunak edo lur gabeak.
- Norberaren datuen babeserako 2018/3 Lege Organikoaren arabera, ezin dizugu ingesaturik dagoen inorri buruzko informaziorik eskaini, zuri dagokizu non dagoen jakitea.
- Ospitaleak ez du zure objektu pertsonalak bere gain hartuko.

**ZESAREA BIDEZKO ERDITZEETARAKO INFORMAZIOA**


- Zesarearen ostean, 1. solairuko ebakuntza gelaren sarreran emango zaizue informazioa (D area).
- Anestesia ondoreneko leheneratzea 2. solairuan egiten da (URPA), D arean.

**MEDIKUAREN BISITA**


- Egunero, 10etatik 12etara, gutxi gorabehera.
- Bisitaren hasieratik, laguntzaileek unitatetik kanpo itxaron beharko dute, igogailuen atarian, eta ezingo dira bisita amaitu arte sartu.
- Bisitari, medikuak zure egoeraren berri emango dizu.
- Pediatrak lehen egunean eta alta egunean emango dizu zure seme edo alabaren egoeraren berri; hori da arau orokorra.

**FAMILIENTZAKO INFORMAZIOA**

- Egunero: MEDIKUAREN BISITAREN OSTEAN.

**JATORDUAK**


8:30ean: Gosaria  
 12:45ean: Bazkaria  
 16:45ean: Merienda  
 19:45ean: Afaria

Erretiluak jatordu bakoitza izan eta ordubetera jasoko dira.

**BISITAK**

- 14etatik 21etara.
- Gehienez pertsona 1 paziente bakoitzeko.**

Nahi izanez gero, senideren bat egon daiteke eguneko 24 orduetan.

**BESTE DATU INTERESGARRI BATZUK**


Kerik gabeko erakunde batean zaude. Hemen ezin da tabakorik erre edota zigarro elektronikorik erabili (baita aparkaleku, lorategi eta kaleetan ere).



Pazienteak edo/eta senideek behar duten **ziurtagiria** (enpresarentzako edo/eta familiako medikuarentzako), beheko solairuko Pazienteak onartzeko zerbitzuan jasotzen da.


**TXAGORRITXU OSPITALEKO TELEFONO ZENBAKIA: 945-007000**

8:00etatik 22:00etara, logelan deiak jaso daitezke, telefono honetara deituz: 945000882.

Kanpora deitzeko, logelatik, telebistako txartelaren bidez ere deitu dezakezu.



**Telebista-zerbitzua** ez da ospitalearen berezko zerbitzua. Erabiltzeko, txip-txartela eta entzungailuak behar dira; atarian duzu tresna horiek lortzeko makina (dena den, zure entzungailuak ere ekar ditzakezu, nahi izanez gero). Txartelak duen diru-kopurua ez da itzuliko, baina ez dauka iraungintze-datarik, hortaz berriro erabil daiteke. Matxuraren bat gertatu edo behar izanez gero, deitu 1422 edo 636 46 59 37 telefonora. Telebista - eta telefono-ekipoak sistema berean integratuta daudenez, ezin dira telebistak deskonektatu, telefono-zerbitzua ere automatikoki deskonektatuko litzateke.


**KAFETEGIA Ordutegia: 7:30etik 22:00etara.**

Erdisotoko solairuan dago.

Igogailuen atarian kafe eta freskagarri makina dago.



**OSPITALEKO ALTA:** Ahal dela, bezperan emango zaizu horren berri. Komenigarria da alta egunean senideren batekin izatea. Altaren egunean komenigarria da gela uztea txosten-medikoa jaso ostean, behar duten pazienteentzat ohea prestatzeko.


**ERLIJIO ZERBITZU KATOLIKOA**

Harremanetarako Telefonoa: 618 75 14 15.

**PAZIENTEAREN ZAKO ETA ERABILTZAILEAREN ZAKO ARRETA ZERBITZUA (SAPU).** Zerbitzu horren beharra izanez gero, Unitateko gainbegiralearen bidez eska dezakezu. **Ordutegia:** 9:00etatik 14:30era (astelehenetik ostegunera)